

HITZ ELKARTUAK ETA TERMINOLOGIA: ZELULANITZ BEZALAKO ADJEKTIBOEN EGOKITASUNA AZTERTZEKO BI IKUSPEGI

Igone Zabala Unzalu
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA¹

Terminologia egiteko orduan, atzean dugun teoriaren arabera era bateko praktika terminologikoa izango dugu. Ildo honetatik, Bartzelonako eskolaren inguruan sortu den “Terminologiaren Teoria Komunikatiboa” (TTK)² deritzonak zalantzan jarri ditu “Terminologiaren Teoria Orokorra” (TTO) esaten zaionaren hainbat oinarri³. Terminologiari hizkuntzalaritzaren ikuspegitik begiratu dion teoria-ildoa honek agerian utzi du ohiko teoriaren abiapuntuak errealitateari urrun dauden idealizazioak direla.

TTKak ondoko puntu ahul hauek antzeman ditu TTOaren barruan:

- Terminoen denominazio-eginkizunean jarri du arreta, baina ahaztu egin ditu alde sintaktiko eta komunikatiboak.
- Ezeztatu eta gaitzetsi egin du aldakortasuna, bai formari bai esanahiari dagokiena.
- Terminologiaren erabilera homogeneousatu nahi izan du, halako aplikazioetan hizkuntza eta herrialde bakoitzaren egoera kontuan hartu gabe⁴.

Cabré-ren eskolaren ekarpen handienetako bat izan da agerian uztea terminoak hizkuntza naturalaren bestelako hiztegi-unitateak bezalakoak direla. Izan ere, hizkuntzaren arauak

¹ Lan hau aurrera eramateko EHUKo 1/UPV 00033.310-H-19921/2001 eta DGESko BFF2000-1307-CO3-01 ikerkuntza-proiektuen diru-laguntza erabili da.

² Ikus adibidez Cabré (2001).

³ Ikus terminologiaren aitatzat hartu ohi den Wüster-en lanak.

⁴ Hizkuntza bakoitzak bere egoerak ematen dizkion abantailak aprobetxatu beharko lituzke. Hizkuntza handiek *corpus* handiak izaten dituzte eskuragarri egun, eta terminologoak *corpus* horietatik lortzen duen informazioa erabiliz, landu behar duen jakintza-esparruaren kontzeptu-sarea eraikitzen ahalegindu behar da. Izan ere, terminoek nolabaiteko sistematikotasuna dute espezialitate-eremu jakin baten barruan. Eraikitzen duen kontzeptu-sare horretatik abiatu beharko da terminologia esparru horretako terminologia biltzeko eta aztertzeko orduan. Euskara bezalako hizkuntza txiki batean aldiz, oso gutxi izaten dira esparru bateko aditu euskaldunak eta askoz ere errazagoa da aditu horiek identifikatzea, erabiltzen duten terminologia biltzea eta haiek buruan egituratuta duten kontzeptu-sarearen berri eskatzea aditu horiei. Praktika hau askoz ere emankorragoa eta errealitateari egokituagoa izan liteke ohiko teoriak eskatzen digun testu idatzietara jotze hutsa baino.

erabiliz sortzen dira eta aldaerak dituzte, beste arrazoi batzuen artean hainbat egoera pragmatikotan erabil daitezkeelako.

Terminoak forma bat eta eduki semantiko bat uztartuz sortzen dira, beti ere espezialitate-eremu baten barruan. Hori dela eta, terminoen formak eta edukiak bi eratako sistematikotasuna dute:

- a) Hizkera orokorrari dagokion sistematikotasuna.
- b) Espezialitate-eremu bakoitzaren barruko sistematikotasuna.

Hizkera orokorrari dagokion sistematikotasuna dutela esaten da hizkuntza bakoitzak hiztegi-unitateak sortzeko dituen mekanismoen arabera eratzen direlako terminoak, gainerako hitzak bezala: a) *ex nihilo* sorrera b) eraketa morfologiko, fonologiko, sintaktiko edo semantikoa c) mailegutza. Termino horiek adituak bermatuko ditu, egiten duen erabileraren bitartez. Bereziki labainkorra da eraketa semantikoa: prozesu honetan kalko semantikoa, metafora eta metonimia bezalako mekanismoak erabiltzen dira, askotan kontzeptu orokor baten eta kontzeptu berezitu (eta gehienetan abstraktuago baten) arteko lotura egitea eskatzen dutenak. Lotura hori egin dezakeen bakarra da aditua, kontzeptu horren eta kontzeptua barruan duen kontzeptu-sarearen berri duen bakarra baita. Adibide bat emango dugu. LUR hiztegi entziklopedikoan gaztelaniazko *dorsal medio-oceanica* terminoa *ozeanoaren erdiko bizkarra* ordainaren bidez emana dator. Zientzia Fakultateko geologoek Geologia Hiztegia⁵ egiten ari zirenean aukera hori aztertu eta ez zuten egokitzen hartu, *bizkar* izenak ez baititu behar duten kontzeptu-lotura egiteko beharrezkoak diren ezaugarri semantikoak: *bizkar* izenaren semantika lotuta dago kokapenarekin eta ez gaztelaniaren *dorsal* izenak dakarzkigun *bizkar*-hezurraren gorabeherekin. Hori dela eta *ozeanoaren erdiko gandorra* egitea erabaki zuten, *gandor* baita behar duten semantika-lotura egitea ahalbidetzen dien izena.

Espezialitate-eremu bakoitzaren barruko sistematikotasunari dagokionez, bi hatsareren arabera sortzen dira terminoak: i) Egituratzea: kontzeptu-eremu bateko kontzeptuen sailak eta azpisailak antzera konpontzeko joera baitago. ii) Analogia: sail bateko kontzeptua adierazten duen unitaterik badago, hori erabiltzen baita maiz eredu gisa, sail bereko kontzeptuei forma esleitzeko.

⁵ EHUGET (1999)

Bigarren atalean terminoen, eta oro har neologismoen egokitasuna epaitzeko bereiz daitezkeen jarrerak erkatuko ditugu eta espezialitateko hizkerak epaitzeko “urrezko legea” ondorioztatuko dugu erkaketa horretatik. Hirugarren atalean *zelulanitz* bezalako adjektibo elkartuak baztertzeko eman izan diren arrazoiak aztertuko ditugu eta agerian utziko dugu arrazoi horiek ez-zehatzak eta pisu txikikoak direla halako baliabide emankorra alde batera uzteko behintzat. Laugarren atalean, halako adjektibo elkartuetarako analisi berriak azalduko ditugu, ondorioztatzeko erraz asko azal daitekeela euskal hiztunek *zelulanitz* bezalako adjektiboak sortzea egun halakoak analizatzeko erabiltzen diren arrazoibideak kontuan hartuta. Gure ondorioa izango da, beraz, halako adjektiboak euskararen eta Gramatika Unibertsalaren arauak erabiliz sortzen dituztela hiztunek eta beraz, erabat gramatikaltzat har daitezkeela. Bosgarren atalean laburbilduko ditugu ondoriook.

1. TERMINOEN EGOKITASUNARI BEGIRATZEKO BI ERA

Cabré-k (2001) zehazten digu eremu bateko adituek eremu horretako kontzeptu jakin bat adierazteko erabiltzen duten terminoa ezegokia izan daitekeela eta terminoen egokitasun maila kanpotik ezarritako patroien baten arabera erabakitzen dela. Patroi horrek zenbait irizpide hartzen ditu kontuan eta irizpide horiek ondo finkatuta daudenean, sistematikoak direnean eta xede ageria dutenean, politika terminologiko baten aurrean gaudela esan daiteke:

- Hizkuntzaren gramatikaren araberrako jatortasuna
- Erabilera-maiztasuna
- Nazioarteko forma izatea e.a.

Gure artean, gramatikaren araberrako jatortasuna nagusitzen da irizpide horien artean. Areago, askotan lotzen da jatortasun hori idazle klasikoen idazkietan parekorik egotearekin eta espainolarekiko analogia-zantzurik ez izatearekin. Hona hemen Sarasolak *ingurugiro* hitzari buruz esaten duena adibidez:

INGURUGIRO. *Medio ambiente*-ren morroi leiala. Frantsesez *environnement* da, ingelesez *environment*, alemanez *umwelt*, hots, “inguramena”. Iparraldean, *Herria* aldizkarian eta, *inguramen* erabiltzen dute, beregainagoa dena eta, hortaz, egokiagoa. (Sarasola 1997: 108)

Ildo honetatik, Hiztegi Batuan *ingurumen* hobetsi dute *ingurugiro* hitzaren ondoan:
«INGURUGIRO h. INGURUMEN»

Alde nabarmena dago epaile-lana egiten duen hizkuntzalari honen jarreraren eta ondoko paragrafoan islaturik dagoen Piera eta Varela-ren jarreraren artean. Azken hauek hizkuntza deskribatzen dute eta ez dute epaitzen hiztunek egiten dutena: arrazoi ugari egon daitezke era bateko neologismoen atzean, itxuraz hizkuntzaren arauen kontra sortzen direla pentsa badezakegu ere.

Un rasgo diferenciador de los compuestos lexicalizados es que a veces exigen una combinatoria contraria a la sintaxis general. Como ya hemos dicho, esto puede ocurrir bien porque el compuesto se ajusta al modelo latinizante (*ricohombre, cuentadante, extremaución, mediodía*), bien porque se pliegue al esquema sintáctico de otra lengua moderna (*librepensador, altacostura, largometraje, normoyente*), bien por razones fonológicas de diversa índole (*credivuelo, publlirreportaje, videotexto, autoescuela, foto/telenovela, fotocomposición, telespectador*)... (Piera, C. & Varela, S. 1999. *Gramática Descriptiva de la Lengua Española* § 67.2.2.1.).

Bestetik, aipatu dugu batzuetan idazle klasikoen testuetatik ateratako ondorioei ematen zaien gehiegizko pisua, neologismo baten alde edo kontra egiterakoan. Gogoan izan behar dugu hizkuntzak aldatu egiten direla (barne edo kanpo arrazoiengatik). Gainera, sintaxia izaten da eremurik iraunkorra eta hiztegia aldakorrena. Areago, espezialitateko hizkeretan gertatzen dira hiztegiaren aldaketa gehienak (hitz-eraketa, semantika-aldaketak, mailegutza). Arreta bereziaz jokatu behar dugu terminoak epaitzeko orduan filologia-irizpideak erabiltzen baditugu: testuek agerian utzi ahal digute zer nolako hitzak sor daitezkeen hizkuntzaren arauak erabiliz, baina ez digute iradokitzen zein diren ezin sor daitezkeen hitzak. Alegia, testuetan era bateko hitzak ez aurkitzeak ez du esan nahi testu horiek sortu ziren garaian ere ezinezkoa zenik halako hitzik sortzea, egun izan dezakegun behar jakin bati erantzuteko beharra egon balitz adibidez.

Esate baterako, euskara modernizatzeko beharrari jarraiki, balio berriak eman dizkiegu hainbat atzizkiri: (*-keria, -tar, -gailu*). *Arrazakeria* eta *bazterkeria* sortuz, esangurari bakarrik

begiratu zaio eta alde batera utzi dira atzizkiak bere oinarriarekiko zituen kategoria-eskakizunak. Beste horrenbeste gertatu da *bitar*, *hamartar* eta *angeluar* bezalako adjektiboak sortu ditugunean: ahaztu egin ditugu atzizkiaren eskakizunak eta erreferentziazko adjektiboak sortzeko dugun atzizki bakarra dela baino ez dugu hartu kontuan. Azkenik, *sendagailu* eta *sendagai* sinonimoak baziren ere, balio semantiko berria eman diogu –*gailu* atzizkiari eta batez ere tresna-izenak sortzeko erabiltzen dugu egun.

Izen elkartu tautologikoen kasuan ere, garai batean euskalkien arteko ulergarritasun-arazoak konpontzeko erabiltzen baziren ere (*eki-eguzki*, *har-zizare*, *sasoi-edade*), berrikiago hiztunak termino modura erabiltzeko arruntegizat hartzen dituen hitzei termino itxura emateko edota mailegu baten eta neologismo baten arteko lotura egiteko erabili izan dira: *larruazal*, *lurzoru*, *busti-palatal*. Ikus lehen ikusi dugun *ingurugiro* hitza ere euskararen hitz-eraketarako arauak erabiliz sor litekeela eta beraz, ez duela inolako araurik apurtzen. Egia da hitz hau sortzeko motibazioa euskararekin ukipenean dagoen gaztelaniaren *medio ambiente* izan dela, baina nahikoa al da hori azken urteetan izugarritzko erabilera zabala izan duen hitza gaitzesteko? Ez al digu aski ondo frogatu hitz honek arrakastatsua izateko behar diren ezaugarriak dituela?

Azkenik *gain* eta *azpi* izenek ere balio semantiko berriak hartu dituzte hitz elkartuen lehen osagai modura jokatzeko dutenean (*gainzama*, *azpigaratu*, *azpisail*): lehen lekuzko semantika baino ez zieten gaineratzen eratzen zituzten hitzei, eta egun aldiz, intentsitatea eta maila harremanak adierazteko ere erabiltzen ditugu.

Euskara garai berrietara moldatuko badugu, aukera eman behar zaie hiztunei bide berriak urratzeko. Hortaz, espezialitateko hizkerak epaitzeko oinarrizko onarpenak izan beharko lukete ondoko hauek:

- Hizkuntzaren gramatika hiztunek buruan dutena da. Hizkuntzalariak gramatika hori deskribatzen saiatzen dira, baina ez dute beti lortzen azalpen egokirik.
- Hizkuntza jakin bateko espezialitateko hizkera erabiltzen (edo sortzen) duen hiztun-adituak bi eratako ahalmena erabiltzen du: a) hiztun modura duen bere hizkuntzaren gramatika-ezagutza eta b) bere espezialitateko kontzeptu-sareen, egoera pragmatikoen eta abarren ezagutza.

Ikus bedi batzuetan terminoak epaitzen dituen hizkuntzalariak bigarren ezagutza hori faltan duela eta adituarengana jo behar duela orduan horren bila.

2. ZELULANITZ BEZALAKO ADJEKTIBO GAITZETSIAK

Ezaguna da *zelulabakar/zelulanitz* bezalako bikoteak ugalduta direla azken urteetan espezialitateko hizkeretan, eta bai hizkera orokorrean ere (*gela balioanitza*). 3.1. azpiatalean adjektibo hauek baztertzeko eman diren arrazoiak laburbilduko ditugu. 3.2. azpiatalean beste jarrera bati atea irekitzen dioten arrazoibideak eskainiko ditugu, eta azkenik, 3.3. azpiatalean, adjektibo elkartu posesiboei euskal gramatikariek egotzi dieten analisia aztertuko dugu.

2.1. ZELULANITZ BEZALAKOAK GAITZESTEKO EMAN DIREN ARRAZOIAK

Hainbat arrazoi eman dira *uni-/pluri-* edo *mono-/pluri-* aurrizkiak daramatzaten erdal hitzen euskal ordainak emateko orduan oso maiz erabili den erabide hau baztertzeko.

- [N + *bakar*] modukoak ugariak dira euskal testuetan (*begibakar, hankabakar, adarbakar, asmobakar...*); ez da azaltzen ordea, [N + *anitz*] modukorik. Edonola, aurreko atalean aurreratu dugunez, testuetan agertu ez izanak ez du esan nahi testu horiek sortu zituzten hiztunek beste egoera pragmatiko batzuetan halakorik sortuko ez zuketarik. Alegia, honek ezin du egiaztatu garai horretako hiztunen gramatika *zelulanitz* bezalako hitzak sor zezakeen araua ba ote zegoen.
- [N + A] moduko adjektiboak dira hauek, alegia, *sudurluze, hankamotz...* bezalakoak eta **zelulanitz* modukoak txarto eratuta omen daude *anitz* adjektiboa gabe zenbatzailea delako. Gramatika-kategoriak hizkuntzalariek hiztegi-sarrerak sailkatzeko erabiltzen dituzten lanabesak dira baina ez dituzte eratzten sail homogeneousak. Izan ere, askotan zaku berean sartuta dauden hitzen artean azpialdeak egin behar dira jokaera sintaktiko eta semantiko desberdinen berri emateko. Euskararen kasuan, gainera, urrun samar gaude oraindik gramatika-kategoria guztiak ondo sailkatuta eta karakterizatuta izatetik.
- Hauek onartzen omen ditugu *anitz* zenbatzailea arrotz egiten zaigulako. Hegoaldean *asko* zenbatzailearen gramatika hobeto ezagutzen dugu eta horregatik ez omen zaio bururatu inori **zelulasko* bezalako zerbait sortzea. Halako baieztapena egiteko askoz

ere hobeto ezagutu beharko genuke *asko* eta *anitz* hiztegi-sarreraren jokaera sintaktiko eta semantikoa. Edonola, hemen gaitzesten den jarrera hori beste kasu askotan aurkitzen dugu. Esate baterako hizkera bat baino gehiago dago *nahi* eta ez *gura* erabilia ere, *logura*, *barregura* eta *jakingura* bezalako hitz elkartuak arazorik gabe erabiltzen dituen⁶. Antzekoa da mendebaldeko hizkeretan aurki dezakegun *gatx* adjektiboaren kasua: halako adjektiboa sekula erabiltzen ez duten hiztunek ere arazorik gabe erabiltzen dituzte *ulergaitz*, *kontentagaitz* edo *landugaitz* bezalakoak. Areago, egungo inolako hizkeratan aurkitzen ez dugun *etsi* aditzaren adiera hartzen du horrek aditz elkartuetan (*gaitzetsi*, *onetsi*, *berantetsi*...). Hala ere, Euskaltzaindiak ustiari beharreko bidea dela deritzo honi, Hiztegi Batuan *baloratu* aditzaren sarreraren berri samarra den *balioetsi* aditza hobesten duela esaten digunean.

- Badira zenbatzaileak dituzten zenbait hitz elkartu, *zelulanitz* horren antzekoak direnak baina denak omen dira izen kategoriakoak: *lauburu*, *hamalauzango*, *hiruadar*. Kontuz jokatu behar dugu honelako baieztapenen aurrean. Izan ere, izenaren eta adjektiboaren arteko muga oso labainkorra izaten da eta gainera, izenek, adjektiboek bezala, beste izen batzuen mugatzaile modura jokatzen dute zenbait segidatan, atribuziozko izen elkartuetan edo *-tzaile* atzizkia daramaten hitzen kasuan adibidez: *mutiko eredu*, *arroka ama*, *lehoi eme*, *emakume idazle*, *molekula elektroihartzaile*.

2.2. BESTE JARRERA BATEN ABIAPUNTUAK

Beste jarrera bat ere izan genezake horrelako hitzen aurrean: euskal hiztunek sortuak dira hitz horiek, eta zenbait esparrutan, oso erabiliak eta funtzionalak gainera. Hortaz, onartzekoak dira. Jarrera horrek eramango gintuzke aztertzeraz zein den halakoak sortzeko egon den motibazioa, beste garai batzuetan, itxuraz, halakorik sortu ez baita. Zientziaren hizkeraren ezaugarrien ganean gogoeta egitera eramango gintuzke horrek: zientzian izakiak eta kontzeptuak sailkatu eta azpisailkatu egiten dira eta bestetik, oso ohikoa da analogia erabiltzea kontzeptuei izenak esleitzeko orduan⁷: *begibakar* modukoa den *zelulabakar* sortu da eta analogia erabiliz, *zelulanitz* sailkapenaren aurkako kontzeptuari izena emateko.

⁶ Koldo Zuazori entzun nion datu hau hitzaldi batean eta benetan kontuan hartzekoa iruditu zitzaidan.

⁷ Gogoratu sarreraren espezialitate-eremu bakoitzaren barruan terminologiak duen sistematikotasunari buruz esan duguna.

Ildo beretik gure buruari egin geniezaiokeen galdera da zergatik erabili dugun *anitz* eta ez *asko* edo *ugari* halako hitz elkartuak sortzeko. Honi erantzuna emateak hiru hitz hauen sintaxia eta semantika sakonki aztertzea eskatuko liguke, baina horien artean alde nabarmenik ba ote dagoen jakin gabe ere, gogoratu bigarren atalean aipatu ditugun *gura/ nahi, gatz/ zail* edota *-garri /-gailu* bikoteen kontua. Hortaz, hizkuntzan antzeko fenomenoak aurkitzen ditugu beste esparru batzuetan eta ez zaizkigu inola ere kezkarriak iruditzen. Ez al dago zientzialarien hizkuntz ahalmen traketsari buruzko aurreiritzirik honen atzean? Halako aurreiritziak alde batera utzita, kontuan har genezake oro har errazagoa gertatzen zaigula askotan esapide arrotzak (beste hizkuntzetakoak barne) lexikalizatzea, alegia, horiei balio semantiko berriak esleitzea, gardenak zaizkigunak baino⁸: (gazt.) *Está de hordago!* #(eusk.) *Hordagokoa dago!*

2.3. EUSKARAREN GRAMATIKAREN ARABERA ERATUTA AL DAGO ZELULANITZ?

Hitz elkartu esaten zaie semantikoki edota fonologikoki unitate bakarra eratzen duten (normalean) bi hitzeko segidei. Edonola, segida horiek morfologia-arauek arabera eratuta daude batzuetan, eta beste batzuetan sintaxi-arauek arabera eratuta daude. Azken kasu honetan konposatu sintagmatikoak ere esaten zaie. Hona hemen euskararen eta gaztelaniaren adibide batzuk:

	Morfologikoak	Sintagmatikoak
Euskara	txori-kaiola ulerterraz egongela	etxeoandre udaberri mutilzahar
Gaztelania	lavaplatos paticorto telaraña	molino de viento bienmesabe tela de araña

Preposizio edo postposizio baten bidez lotuta daudenean, erraz jakin dezakegu sintaxian eraturiko segiden aurrean gaudela, baina I+A moduko segidak ditugunean, zalantza gehiago sortzen zaizkigu. *Zelulabakar* eta *zelulanitz* bezalako izenondoak aztertu behar ditugunean,

⁸ Honek ez du esan nahi hasiera batetik *anitz* eta *asko* hiztegi-sarrereren jokaera aztertuta, kontu honi dagokionez desberdin jokatzeko arrazoirik aurkituko ez dugunik.

sudurluze, hankamotz, begigorri, muturbeltz edo *eskuzabal* bezalako izenondoekin (bahuvrîhi edo posesiboekin) harremanetan jartzea da bururatzen zaigun lehenengo ideia. Euskal gramatikariek exozentrikotzat hartu dituzte honelako hitz elkartuak (Villasante 1974⁹; Azkarate 1990).

Hitz elkartu endozentrikoek burua dute, eta buru hori hitz elkartu osoaren hiperonimoa da: *txori-kaiola* kaiola mota da, eta *idazmakina* makina mota da. Bestetik, hitz elkartu osoak buruaren kategoria du. Exozentrikoek aldiz, ez dute buru semantikorik eta askotan ez dute ez osagai baten ez bestearen kategoria: *azeribuztan* ez da azeri mota bat, ez eta buztan mota bat ere, landare mota baizik, eta *buru-belarri* ez da ez buru mota ez belarri mota: bete-betean jarduera batean murgilduta egoteko modua da, eta gainera, adberbioa da, ez izena. Lehenengo kasuan, exozentrikotasuna semantikari dagokio bakarrik, baina bigarreanean, exozentriko sintaktikoez hitz egin dezakegu, gramatika-kategoria ez baita inolako osagaiarena. *Zelulanitz* bezalako segidak hitz elkartu exozentrikoak badira, ez du inolako garrantzirik *anitz* horren gramatika-kategoriak, exozentrikoetan ohikoa baita hitz elkartu osoaren kategoria ez osagai batena ez bestearena ez izatea. Hortaz, euskal gramatikariek honelakoei egotzi dieten analisiaren arabera, ez dugu inolako irizpiderik euskal morfologia-arauen aurka eraturik daudela esateko.

⁹ Villasantek elipsia hartzen du hitz-elkarketaren arimatzat eta honelakoetan *dun* ezabatzen dela aldarrikatzen du.

3. NOLA AZTERTU DITUZTE BESTE HIZKUNTZETAKO GRAMATIKARIEK HONELAKO SEGIDAK?

Gaztelaniaz badira *sudurluze* horren antzekoak diren adjektiboak, I+i+A formularen arabera eratutakoak (*pelirrojo*, *cullicorto*, *patilargo*). Katalanez ere badira antzeko adjektiboak, lotura-bokalik¹⁰ ez badaramate ere (*alallarg*, *camacurt*, *alaferit*, *alalligat*). Edonola, gaztelaniaz badira beste eskema baten arabera (I+A) eratutako segidak ere (*caradura*, *pielroja*, *calzaslargas*).

3.1. ERDAL I+i+A ETA I+A MODUKO SEGIDEN ANALISIAK

Badira I+i+A eraketa-arauaz sorturiko adjektiboak exozentrikotzat hartu dituzten hizkuntzalariak (Benveniste 1967; Núñez Cedeño 1991; Rainer eta Varela 1992), baina badira honelako adjektiboak endozentrikoak direla aldarrikatu dutenak ere (Bustos 1984; Manteca Alonso Cortés 1987; Val Alvaro 1999; Gràcia eta Fullana 1999).

Analisi endozentrikoaren arabera, *paticorto* gutxi gorabehera *corto de patas* segidaren parekoa da, eta batean zein bestean, burua *corto* izanik, ez da harritzekoa hitz elkartu osoaren kategoria adjektiboa izatea. Esangura ere erraz ondoriozta daiteke analisi horretatik abiatuta. Hortaz, adjektiboa hitz elkartu osoaren burua dateke, eta ezkerreko izena, mugatzailea. Gakoa da ezkerreko izen horrek ‘jabetza inalienableko’ harremana duela adjektiboak modifikatzen duen izenarekin (*niño paticorto* —“niño de patas cortas”— “niño corto de patas”). Gràcia eta Fullana-ren iritziz (1999), hitz-eraketan bi osagaien egitura lexiko-kontzeptualak (ELK) elkartu egin behar dira eta sortzen den hitz elkartuaren ELKa bien batuketa izango da. Jabetza inalienableko izenek aldagai bat dute ELKean (1) eta adjektiboaren ELKeko aldagaiarekin batera, argumentu bat islatuko dute sintaxian, modifikatzen duten izenarekin ase geratuko dena.

- (1) ELK: *corto* [*ezaugarria x corto*]
ELK: *pata* [*gauza pierna (OF y)*]

¹⁰ Lotura-bokala esaten zaio *pelirrojo* bezalako adjektiboetan eta bai *maniatar* bezalako aditzetan azaltzen den *-i-* bokalari. Ikus bedi euskaraz sortua den *zakilizut* izenak ere *-i-* lotura-bokala daramala eta beraz, gaztelaniaren eraketa-arauei jarraituz eratuta dagoela. Hala ere, oso adierazkorra, erraz ulertzekoa eta funtzionala da, eta beraz, inori ez zaio bururatu horren aurka egitea.

Badira antzekoak diren baina sintaxian eratzen diren segidak: *cabezadura*, *caradura*, *pielroja*, *calzaslargas*... Hauek N+A formularen araberakoak dira, eta sintaxian eratzen direla onartzen da barne komunztadura dutelako. Lexikalizaturiko izen-sintagmatzat har litezke beraz.

(2)	N+i+A	N+A
	a. niño pelirrojo	c. niño cabezadura (*cabezaduro)
	b. niñas pelirrojas	d. niñas cabezaduras

3.2. EUSKARAREN SEGIDEN ANALISIAK

Euskararen kasuan, N+A erako segidetan ez dago inoiz barne-komunztadurarik eta beraz, zailagoa da halako segidak sintaxian ala morfologian eratzen ote diren egiaztatzea. Hori dela eta, bi hipotesiek eskaintzen dizkiguten bideak urratuko ditugu:

- Demagun halakoak lexikalizaturiko sintaxi-segidak direla. Orduan, bete beharko lituzketen arauak lirerateke izen-sintagmak eratzeko erabiltzen ditugun sintaxi-arauak. Osagaiak sintaxi-arauen arabera antolaturik dituzte *zelulanitz* bezalakoek eta beraz, ondo eratuta leudeke.

(3)	N+A	>	<i>udaberri, sudurluze</i> ...	(saso berria, denbora luzea)
	Zenb.+N	>	<i>ehunzango, lauburu</i> ...	(ehun liburua, lau azterketa)
	N+Zenb.	>	<i>zelulanitz, mineralanitz</i> ...	(ikasle anitz, ikuspegi anitz)

- Demagun bestela, morfologian eraturiko segidak direla. Adjektibo hauek posible egingo lituzkeena orduan, ez litzateke izango burua adjektiboa izatea, baizik eta izen mugatzailea jabetza inalienableko izena izatea.

(4)	[N _{jab. inal.} + A] _A	>	<i>sudurluze, hankamotz</i>
	[Zenb. + N _{jab. inal.}] _I	>	<i>lauburu, ehunzango</i>
	[N _{jab. inal.} + Zenb.] _A	>	<i>zelulanitz, mineralanitz</i>

Zailtasun handirik ez du honela azaltzeak zergatik *anitz* horrek ezin era dezakeen izenaren modifikatzailezik eta are gutxiago predikaturik: predikatuak eratu ahal izateko hiztegi-sarrerek gutxienez aldagai bat izan behar dute beren ELKean sintaxian argumentu bat islatzea

posible egingo diena, alegia, argumentu-egitura izan behar dute¹¹. *Anitz* hiztegi-sarrerak ez du halakorik (5a), baina *zelulanitz* izenondo elkartuak aldiz, badu halako argumentua, jabetza inalienableko izenaren ekarpena dena.

- (5) a. *Organismoak *anitzak* dira.
- b. Organismo hauek *zelulanitzak* dira.

Erraz bezalako adjektiboek, beren argumentu-egituran “argumentu ezkutua”¹² dutela esaten da, eta hauek ere, adjektibo elkartuak era ditzakete: *ulerterraz*, *igaroerraz*, *ikaserraz*... Honelako adjektiboekin *liburua erraza da* edo *filma erraza da* esaten dugunean, zerbaiterako erraza dela ulertzen dugu:

- (6) a. Liburua erraza da (irakurtzeko, ulertzeko, *igotzeko)
- b. Filma erraza da (*irakurtzeko, ulertzeko, egiteko, *igotzeko)
- c. Mendia erraza da (igotzeko, *ulertzeko, *irakurtzeko, *egiteko)

Argumentu ezkutua syntaxian gauza daiteke (6) edo bestela, morfologian gauza daiteke adjektibo elkartu bat osatuz (*liburu irakurterraza*, *film ulerterraza*...).

Sanchez-ek (2002) halako argumentu ezkutu bat egotzi die *paticorto* bezalakoetan parte hartzen duten adjektiboei. Gure iritziz ordea, euskaraz behintzat, adjektibo elkartu posesiboetan, modifikaturiko izenarekin gertatzen den lotura, jabetza inalienableko izenaren aldagaiaren ondorioa da, eta ez izenondoaren argumentu-egituraren ondorioa:

- (7) a. liburua erraza da \approx liburua irakurterraza da
- b. gizona luzea da \neq gizona sudurluzea da
- c. zuhaitza erorkorra da \neq zuhaitza hostoerorkorra da
- d. #basoa erorkorra da / basoa hostoerorkorra da
- e. *animaliak anitzak dira / animaliak zelulanitzak dira
- f. izakia bakarra da \neq izakia zelulabakarra da

¹¹ Gai honen inguruan ikus daiteke Zabala (1993) eta bertan aipatzen den bibliografia.

¹² Pustejovsky-k (1995) “shadow arguments” deritze hauei.

Ikus honelako adjektibo elkartu posesiboak bakarrik direla posible jabetza inalienableko izenekin edo askotan antzeko jokaera duten jantzien izenekin, edota, izaki baten berezko zatiak adierazten dituzten izenekin.

- (8)
- a. Mutilak liburu lodia du / *mutil liburulodi
 - b. Neskak gona motza du / neska gonamotz
 - c. Gizonak begi bakarra du / gizon begibakar
 - d. Gizonak emazte anitz ditu / * gizon emazteanitz
 - e. Arroka honek mineral anitz ditu / arroka mineralanitz
 - f. Zuhaitzak hosto erorkorak ditu / zuhaitz hostoerorkor
 - g. Zuhaitzak habia handiak ditu / *zuhaitz habia-handi

3.3. ZERGATIK EZ DA ERATU #ZELULASKO ETA #ZELULAGUTXI MODUKORIK?

Esan izan da #*zelulasko* eta #*zelulagutxi* bezalakorik ez dagoela hegoaldeko hiztunok *asko* eta *gutxi* zenbatzaileen gramatika ondo ezagutzen dugularik badakigulako halakorik ezin era daitekeela. *Anitz* zenbatzailearen gramatika ez ezagutzeak eraman omen gaitu *zelulanitz* bezalakoak egitera. Halako argudioek ez dute funts handirik ordea: sintaxi-baliabideak eta morfologia hiztegi-sortzailea bereizten dituzten ezaugarrien artean garbientako bat da lehenengoek %100eko emankortasuna dutela eta bigarrenek aldiz ez dutela inoiz erabateko emankortasunik. Alde nabarmena dago gainera, morfologia-baliabide batzuen eta besteen artean emankortasunari dagokionez. Hori dela eta, espero dezakegunarekin bat dator (9) adibide sortako eskuineko zutabearen (morfologiari dagokionean) hutsuneak egotea:

(9)	SINTAXIA	MORFOLOGIA
	ulertzeko erraza	ulerterraz
	ulertzeko zaila	#ulerzail
	zelula bakarreko	zelulabakar
	zelula anitzeko	zelulanitz
	zelula askoko	#zelulasko
	zelula gutxiko	#zelulagutxi

4. ONDORIOAK

Arreta handiaz jokatu behar da emankorrak eta funtzionalak diren terminoak gramatika-arrazoiak direla eta baztertu aurretik. Batzuetan itxuraz gure gramatika-ereduaren aurka doazen adibideek badute azalpenik hizkuntza hobeto ezagutzen dugun neurrian.

Espezialitateko hizkerak erabiltzen dituzten hiztunek, hiztun modura dagozkien ahalmenaz gain, badute beren eremuko kontzeptuen eta pragmatikaren ezagutza. Hori dela eta, oso baliagarriak gerta dakizkioke hizkuntzalariari aditu horien ekoizpenak hizkuntzak egoera berrietan nola jokatzen duen ikertzeko orduan, eta beraz, oro har hizkuntza hobeto ezagutzeko.

Hizkuntzalaritza aplikatuak (eta horren barruan terminologiak) erabiltzaileen arteko komunikazioa errazteko xedea izan behar du eta ez du komunikazio hori zaildu dezakeen oztoporik jarri behar, 'jatortasunaren' izenean edo bestelako edozein arrazoiren izenean.

BIBLIOGRAFIA

Azkarate, M. 1990. *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia: Mundaiz.

Benveniste, E. 1967. "Fundamentos sintácticos de la composición nominal". *Problemas de Lingüística general*. Madrid Siglo XXI, 1977.

Bustos, E. 1984. *La composición nominal en español*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.

Cabré, M.T. 2001. "Consecuencias metodológicas de la propuesta Teórica (I)". In M. T. Cabré; J. Felui (ed.) *La terminología científico-técnica*. Bartzelona: IULA. Pompeu Fabra Unibertsitatea.

EHUGET. 1999. *Geologia hiztegi entziklopedikoa*. Donostia: Elhuyar.

Euskaltzaindia. 1987. *Hitz-elkarketa/1*. Bilbo.

———. 1992. *Hitz-elkarketa/4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo.

Gràcia, Ll.; Fullana, O. 1999. "On catalan verbal compounds". *Probus*, 11 (1999): 239-261.

Núñez Cedeño, R. 1991. "Headship Assignment Resolution In Spanish Compounds". In H. Campos; F. Martínez Gil, (ed.) *Theoretical Analysis in Romance Linguistics*. Washington: Georgetown University Press, 573-598 or.

Piera, C.; Varela, S. 1999. "Relación entre morfología y sintaxis". In I. Bosque; V. Demonte (ed.) *Gramática Descriptiva del Español*. Madril: Espasa, § 67.

- Pustejovsky, J. 1995. *The Generative Lexicon*. Cambridge: MIT press.
- Rainer, F.; Varela, S. 1992. "Compounding in Spanish" *Rivista di linguística*. 4 liburukia, I zenbakia, 1992, 117-142 or.
- Sánchez Lopez, C. 2002. "La relación de posesión inalienable en los compuestos". In *W.A.M Homenaje al profesor J.J. Bustos Tovar* U.C.M. Madril (argitara bidean).
- Val Alvaro, F. 1999. "La composición". In I. Bosque; V. Demonte (ed.) *Gramática Descriptiva del Español*. Madril: Espasa, § 73.
- Sarasola, I. 1997. *Euskara batua ajeak*. Irun: Alberdania.
- Villasante, L. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Serie 'Luis Elizalde' sobre la unificación del euskara escrito. Fascículo 3. Oñati: Editorial Franciscana.
- Wüster, E. 1998. *Introducción a la teoría general de la terminología y a la lexicografía terminológica*. M.T. Cabré (ed.). Bartzelona: IULA. Pompeu Fabra Unibertsitatea. [liburu honen jatorrizko bertsioa Alemanian argitaratu zen 1979 Wüster hil ondoren].
- Zabala, I. 1993. *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean: euskararen kasua*. EHUko doktoretza-tesia (argitaratu gabea).